

LIBURU
AURRERAPENA

Mari Sol Bastidak lanbidea eta bizi-ibilbidea partekatu zituen urte askoan Mikel Laboa kantariarekin, bere senar zenarekin. Oroitzapenak eta urteetan gordetako agiri eta lekukotasunak oinarritzat hartuta, Mikel Laboaren biografia bat osatu eta argitaratu du.

Memoriak. Mikel Laboaren biografia bat

I-1950EKO UDABERRIA

Bukatzen ari da 1950eko udaberria, eta Donostiako Artzain Onaren elizako absidearen inguruan gaude, Peñafloa Institututik oso hurbil (Koldo Mitxelena kulturunea gaur egun), Mikelek han ikasten baitzuen garai hartan, ikastetxea utzi beharrean gertatu eta gero; izan ere, «bihotz handia» diagnostikatu zioten, Mikelek koinatu medikuari barre eginarazten zion esapidea. Merkataritza Eskolatik ere (Postaren egoitza gaur egun) gertu zegoen Institutua; garai hartan, eraikin zikina eta zarpaila zen, estilo neoklasikoa, hibrido samarra eta frantsesua, eta hantxe zegoen Arte eta Ofizioetako Eskola ere. Azken horretan ari nintzen ni ikasten merkataritza-peritutzako lehen ikasturtea.

Leku hartantxe, hain zuzen ere, hasi nintzen konturatzen bazela mutil gaztetxo bat, altua, lerdena eta dotore jantzia, maiz begiratzen zidana eta atzetik segika ibiltzen zitzaidana...

[...] Ezagutzen nituen lehendik egun hartan interpretatu behar zituen abesti asko, baina behin ere ez ninduten ordu arte bezala «ukitu» eta hunkitu, ezta behin ere. Esan dudanez bezala, eta errepikatu egiten dut, hauxe da eta nire iritzi adierazteko modurik egokiena: erabat liluratu ninduen. Harrezkero, bere proposamen guztietan bultzatu nuen beti Mikel, edo gutxienez gogoan hartu eta kritikatzin nituen, baita oso zoroak eta eskasak iruditzen zitzaizkidanean ere. Era berean, nik uste dut orduan sortu zela nire jarrerak kritikoa, askotan adierazten niona, hirurogeitan eta hirurogeita hamarren hasieran batez ere, «ikara eszenikoa» zela medio, ez zuenean jendaurrean era-

kustea lortzen ikara gainditzen zuenean iritsi eta erakutsi zezaketen maila.

[...] Mikelek Bartzelonako ospitaleko lana utzi zuen, eta, 1964ko uztailearen 18an, trenez, Donostiara joan eta bertan ezkondu ginen, prestakuntza-lanak bizkor egin ondoren, 1964ko abuztuaren zortzian. Mikelek Donostiako Ospitalean lan egiteko eta musikarekin jarraitzeko asmoa zuen. Nik itzulpengintzan jardutea pentsatzen nuen, eta eskuartearen lehenengo eskaria. Ordurako partekatzen genituen amets batzuk (edo agian helburuak besterik ez ziren, halako ukitu utopiko batekin), eta elkarrekin egin nahi genuen haietara iristeko bidea.

IV-1964-1980

[...] Esandako guztiaren ondorioz, eta agian baita gure kasuan erantsi ziren beste faktore batzuen ondorioz ere, beste zentzu batean ere ez ginen konbentzionalak izan: bada estereotipo bat, askotan argitaratzen dena, ez dakit ondo nolako oinarri empirikoarekin, eta esaten duena maiteminak, sexu-grinak... edo dena delakoak, bikotearen baitan, gehienera ere hemezortzi hilabetez, zazpi urtez irauten duela, eta abar eta abar. Gure kasuan ez zen halakorik gertatu; eta seguru esan nezake gure harremanak, ezkondu eta handik hamar urtera, eta hogeita hamar eta baita berrogei urtean baino gehiagoan ere (gainditu ahal izan genuen krisi gogor baten ondoren), zentzu horretan, suharagoak eta bizia-agoak izan zirela gure elkarbizitzako lehen hamarkadan baino. Faktore hau garrantzitsua baita bikotearen bizitzan, eta orain arte aipatu ez badut ere,

hau dena hobetoxeago azaltzen saiatuko naiz, gehiegi ez gorritzeko eginahalak eginez, eta gogoran izanik betiere, nire us-tean, kasu bakoitzean era askotako faktoreek eragin ohi dutela.

[...] Bere lehen diskoa grabatu ondoren, Mikelek gitarra-eskoletara joaten eta abesti berriak prestatzen jarraitu zuen. Eta 1965eko udaberriaren inguruan, lehen pausoak ematen hasi zen erreferente gisa Setze Judjes eta Nova canço zeuzkan «talde-idea» hura bideratzen hasteko. Egunkariaren bidez jakin zuen Orioko mutil gazte bat, Benito Lertxundi izenekoa, finalista geratu zela abestilehiaketa batean. Mikel

Forcadaren (esan dudanez bezala, eskolako laguna zen, Jarrai antzerki-taldeko kidea eta Mikelen lehen diskoaren azalaren egilea), Juan M^a Indoren eta Manoli izeneko neska baten bitartez –Manolik haiekin lan egiten zuen Espiral altzari-dendan eta Orion bizi zen–, jakin zuen Mikelek Benitoren harremanetan jartzeko telefono-zenbakia. Deitu zion eta Bartzelonan ezagutu zuen abestitaldearen «antzeko zerbaite» antolatzeko aukeraz hitz egin zuen harekin.

V-1980-1997

[...] Nolakoa zen Mikel bere jardunbide medikoan? Lehen ere esan dudanez, alor honetan zientziari zioen errespetu handiak eta bere humanismo sakonak gidatzen zuten. Nik uste dut hori hala dela, eta hala dela halaber Iñaki Bidegain neurologoak Mikeli buruz duela gutxi egin duen lan batean dioena: «Laboa medikua Laboa pertsona bezalakoxea izan zen: gizon maitagarria, apala eta diskretua». Nik beste ezaugarri



«Nekatua nago txiste horiekin. Hirurogei urte beteta feminista egingo naizela iruditzen zait...!». Eta non erantzuten didan nire ikaslea izandako Verónicak: «Mari Sol, zu beti izan zara feminista. Ez zeningun gaia aipatzen, baina eskolako ematerakoan zenuen itxurak eta jarrerak, feminista zinela pentsarazi ziguten beti...». Hitz haiek dezente kontsolatu ninduten, gizarte-giro zabalduen aurrean nik nuen jarrera eta erantzuna zirela-eta. Baziren, gainera (eta, agian, funtsean) Mikelekin zerikusia zuten eta animatzen ninduten beste arrazoi batzuk ere...

bat erantsiko nuke: zuhurtasuna. Bai bere jardunbide mediko profesionalen, bai familiaren inguruan egiten zuen lanean, oso nekez itzuri egingo zion ezerk Mikeli zuhurtasun-faltaren ondorioz.

VI-1997-2005

[...] Azken puntu hark neure onetik ateratzen ninduen... Betiko ile-apaintzailearekin hitz egin zenezakeen (adiskidea nuen), edo filosofo konprometituarekin... eta batak eta besteak adarra jotzen ziguten txisteak eginez neska «bikain» haiekin (edo neska-puska haiekin, batzuetan esaten zuten bezala) Mikelek zuen arrakasta handia zela-eta. Txiste bat han, txiste bat hemen, ematen zuten inor ez zela konturatzen ikuspegi aldeaz, eta zeinen go-gaikarria gerta zitekeen hura dena. Hain haserre nengoen giro harekin (eta zenbait jokamoldeekin), non nire lankideekin –Maite eta Verónica– hitz egin bainuen gizarte-balorazio desberdin hartaz. «Nolako aldeagoen tratuan!», esaten nien.

[...] Hemen eta kanpoan argitaratu ziren kritikak, bat izan ezik, onak edo oso onak izan ziren. Dударik ez zen Mikelek ez zeukala garai bateko ahotsa. Baina pieza askorengatik, eta igortzen dituen sentikortasun, egia eta mezuagatik... disko garrantzitsua da askorentzat. Halaxe zen guretzat, dударik gabe. Behin ere ez zigun disko batek hainbesteko lanik eman. Odisea baten antzekoa izan zen! Gaur egun maiz aditzen dut. Badira zenbait pieza asko gustatzen zaizkidanak, baina badira bi niretzat esanahi guztiz berezia dutenak: *Orduan* eta *Ne me quitte pas*.

VII-2005-2008: AZKENA

[...] 2008ko azaroaren 11n, Gipuzkoako Diputazioko Urrezko Domina eman zioten Mikeli. Bihotzbihotzez eskertzen dut... merezi zuela uste dut.

Azaroaren erdialdean hasi zen Mikelen azken behaldea, eta, adore handia bazuen eta bizitza oso maite bazuen ere, ezin izango genuen saihestu.

'Memoriak. Mikel Laboaren biografia bat'

Egilea: Mari Sol Bastida.
Jatorrizko hizkuntza:
gaztelania.
Itzultzailea:
Koro Navarro.
Argitaletxea: Elkar.